

BIZITZA OSOA ELKARREKIN

·Zuek bai jakin!: Koro Badiola ·Elkarrizketa: Javier Arratibel ·Izerdi patsetan: Ostadar
mendi taldearen 25. urteurrena ·Boteprontoan: Daniel de la Iglesia

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko
urria
130. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Bizitza osoa elkarrekin
- Erreportajea**
- 11 Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Antiorako dauden egitasmoak ezagutzen al dituzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Argazki zaharra**
- 18 Klik eta klik**
Gotzon Aranburu
- 20 Zuek bai jakin!**
Koro Badiola
- 24 Elkarrizketa**
Javier Arratibel
- 28 Gure gomendioa**
- 29 Izerdi patsetan**
Ostadar mendi taldearen 25. urteurrena
- 32 Gure aholkuak**
- 33 Literatura**
- 34 Boteprontoan**
Daniel de la Iglesia



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Bizitza osoa elkarrekin

Banantzeak eta dibortzioak eguneroko kontua diren garaian bizi gara, baina bizitza ia osoa elkarrekin daramaten bikoteak ere badira. Urretxu eta Zumarragan askok daramate 50 urte baino gehiago elkarrekin ezkontuta. Zein ote sekretua? Euretako batzuekin hitz egiten izan gara urte hauetan guztietan bizitakoaz.

Juan Kruz Lasa eta Dolores Garmendia: “Elkarren kexarik ez dugu. Aberastasunik hadiena miserian egon ez izana da”

Egunkarian atera zen ezkontza eguneko argazkia.



Juan Kruz eta Dolores, euren etxeko sukaldean.



Juan Kruz Lasak eta Dolores Garmendiak aspalditik, umetatik, eza-gutzen dute elkar. Izan ere, bata bestearengandik oso gertu bizi ziren: Juan Kruz Ezkioko Zela baserrikoa da eta Dolores, berriz, Zumarragako Saltsamendikoa. Baserri bakoitza mendi beraren sakon batean dago.

Oraindik haurrak zirela, Zumarragara edo etxera bidean topo egiten zuten askotan. Doloresek esnea saltzen zuen Zumarragan. Beranduago hasi ziren elkarrekin. "Honek panderoa jotzen zuen Atxurtzan Olarterekin eta han hasi ginen elkarrekin. Saltsamendin bi etxebizitza daude eta bestean neskamea zuten. Hark Atxurtzako erromerira joatea proposatu zidan gerra ondoren. Ez genekin bidea, baina Igartza baserrikoa ere lagun egin genuen eta hala joan ginen lehenengoz", dio Dolores Garmendiak.

Garai hartako gazteak kate motzean lotuta zeuden. "Ilunabarrean Antioko Felipak kanpaia jotzen zuen eta ordurako etxeratu beharra genuen. Jolasean deskuidatu ginela eta pixka batean ez jotzeko esaten genion. Etxera heldu eta zera esaten ziguten: *Felipari nork esan dio kanpaia ez jotzeko? Gaur beranduago jo din?*".

Halako batean, elkarrekin hasi ziren. Juan Kruzen arreba Doloresen laguna zen eta horrek ere zeresanik izan zuen. "Segituan maitemindu ginela uste dut. Lan handirik ez genuen izan eta gero ere ez dugu lanik izan. Oso ondo konpondu gara", aipatu du Doloresek.

Hala ere, hasiera batean, ez zen dena erraza izan. "Kontuz ibili behar! Ez zegoen heltzerik", dio Doloresek. "Bai,

bai, heltzen genion elkarri", esan du Juan Kruzek. Gainera, gazteek ez zuten elkar ikusteko egun hainbeste askatasun. "*Arratsaldean irtengo al gara? Ez dakit, gure etxean lana egongo da.* Esnea saltzera etortzen nintzen eta bere arreba erosketak egitera. Hari esaten nion Juan Kruzekin ateratzerik nuen edo ez", azaldu du emazteak. "Orduan, belarra edo garia, beti zegoen zer edo zer egiteko", jarraitu du senarrak.

Hori gutxi balitz, Doloresen etxean ez zuten batere ondo hartu Juan Kruzekin

Dolores Garmendia:

"Emaztea ez da azpian

egon behar, senarra nahi

duen tokira eramaten

jakin behar du"

hasi izana. "Etxekoak berehala konturutzen ziren zertan ari ginen... *Zer, mutil horrekin ibili behar al dun?*, galdetu zidan aitak. *Bai*, erantzun nion. *Ikusiko dinau.* Etxean neskazahar egotea nahiago izango zuen, beharbada. Ez genuen segituan alde egin... 26 urte beteta nituen ezkondu nintzenerako".

Azkenean, berak nahi zuen mutilarekin ezkondu zen. "21 urte bete nituenean esan nion aitari nahi nuenarekin ezkonduko nintzela. Garai hartan 21 urterekin lortzen zen adin nagusitasuna eta ez zuela niri agintzerik esan nion".

Juan Kruz ondo moldatzen zen bere emaztearen aitarekin, nahiz eta hasie-

ran ez zion berarekin ezkontzeak grazia handirik egiten. "Aitarekin, anaiarekin... denekin ondo moldatzen nintzen. Bere anaia Pako, niretzako ere anaia modukoa da", dio.

Bikote gaztea Eitzagan jarri zen bizi-tzen. "Errentan geunden eta garestia zen oso. Antio hiribidean bizi ginen. Hamaika urte eman genituen bertan. Eitzagako eskola garai hartan egin zuten eta guk ere zer edo zer ordaindu genuen hura egiteko. Orduan ere etxebizitza erostea ez zen erraza. Garai hartan Antio hiribideko etxeak berriak ziren, baina oso gaizki egon ginen. Izan ere, beheko solairuan jarri ginen eta hezetasun handia zegoen", azaldu du Doloresek.

Duela 42 urte Bidezarrera joan ziren eta bertan bizi dira ordutik. "Eli alaba txikia zen eta han ezin genuela jarraitu erabaki genuen. Etxe hau egin eta berehala etorri ginen". Doloresek esan bezala, orduan ere ez zen erraza etxebizitza erostea. Zorionez, biek etxetik kanpo lan egiten zuten. Doloresek hiru etxetan lan egin zuen 25 urtetan eta Juan Kruzek Patrizio Etxeberrian eman zituen urte gehienak.

Elkarrekin igarotako urte hauek guztiak "onak" izan direla diote. Doloresek azaldu du zergatia. "Elkarren kezarik ez dugu. Aberastasunik handiena, miserian egon ez izana da. Sobran ere ez dugu izan, etxea guk ordaindu baikenuen. Alabari ikasketak eman genizkion... Zoriontsu bizi izan gara".

Zer egin behar da bizitza osoa pertsona berarekin eta zoriontsu emateko? "Ai! Anttonek (bilobak) horixe bera galdetu zidan behin. Bata bestea errespetatu

behar da. Gu ere haserretzen gara, e! Jenio oso bizia dut, baina gizona eramaten jakin dut. Gizona normalean emakumea baino zakarragoa da. Haserretzen naizenean sukaldetik alde egiten dut eta gero isil-isilik itzultzen naiz", dio Doloresek.

Emakumeei, gainera, ez zaie senarrekin haserretzeko arrazoirik falta. "Kanpoan lan egiten nuen, baina etxeko lanak ere egin behar nituen. Berak fabrika lan egin eta kitto. Gauzak aldatu egin dira, baina guk ez genuen laguntzarik. Senarra tabernan eta emaztea etxean lanean. Dena den, emaztea harrotzen bada gauzak okertu egiten dira. Ez da azpian egon behar, senarra berak nahi duen tokira eramaten jakin baizik".

Hala, Juan Kruzi lagunekin kalean ibiltzea gustatzen zitzaion arren, Dolores ez zen etxean gelditzen. "Larunbatetan eta igandetan elkarrekin ateratzen ginen. Antiora joaten ginen. Bestalde, udan 15 egun ematen genituen Urbiako aterpean. Aurten ere joan gara. A zer nolako parrandak egiten genituen Azkoititik eta Azpeititik etortzen zen jendearekin eta soinu-joleekin!", oroitzen du.

Dolores emakume azkarra da eta gehienetan bere inguruko gizonezkoek berak esana egitea lortu du. Juan Kruzekin ezkondu zen, hasieran aita alde ez bazegoen ere, eta Eitzagatik Bidezarrera jaitsi ziren, senarrak nahi ez bazuen ere. "Korta tabernan ibiltzen zen eta ez zuen behera etorri nahi izan. Busca Sagastizabal kaleko etxeak eta Bidezarreko hauek batera egin zituzten, haiek erdia balio zuten eta ez genuen dirurik. Askok haserretu ginen, baina ez nuen amore eman. Egunero, lanera joa-

teko, kalera lau aldiz joan behar nintzela eta egunen batean nire etxea nahi nuela esan nion. Eskolara gutxi joan naiz, baina beti aurrera egin dut. Etxea 260.000 pezetatan erosi genuen, baina ordaintzen hasi eta bi hilabetera milioi erdi balio zuen. Horrela ere ez zen baretu senarra! *Zuk uste baino lehen ordainduko dut nik etxea*, esan nion. 10 urtetan ordaintzeko eskatu genuen dirua, baina bostetan ordaindu genuen. Dirua senarrak gordetzen zuen, baina aurrezki kutxara eramateko behar nuela esaten nion. Zorra kitatutakoan, nahi zuena egiteko", aipatu du Doloresek. Senarra eta emaztea ezberdinak dira.

Dolores Garmendia:

"Elkarrekin bizitzera

joateko erabakia hartuz

gero, elkarri entzun eta

errespetatu behar da"

Juan Kruz Lasak taberna eta bertso giroa atsegin ditu. Luzio Gabiriak Galeperran antolatutako bertso txapelketetan sariren bat irabazi zuen. Soldadutza Lazkao Txikirekin egin zuen eta lagun minak izan ziren. Poliklinikan hilzorian zenean, bertsoa abestu zion. Lazkao Txikiri buruzko liburu batean Juan Kruzek hari kontatutako txiste batzuk ere ageri dira.

Emazteak galarazi zion bertsoan jarraitzea. "Umearekin bakarrik gelditzen nintzen eta biona zela esan nion.

Astegunetan lagunekin egoten zela eta asteburuetan nirekin egon behar zela. Izan ere, bertsoetara ez ezik, Reala ikustera ere joaten zen".

Orain 79 eta 82 urte dituzte eta egun osoa dute elkarrekin egoteko. "Senarrak goizean bueltatxo ematen du. Ni beranduago jaikitzen naiz eta alabarengana joaten naiz. Senarrak nahiago du lagun batekin txikito pare bat hartu eta berak prestatzen du bere bazkaria. Iluntzerako beti elkarrekin gaude. Udan Urbiara joaten dira oraindik. Uztailean, berriz, Santo Domingo de la Calzadara joaten gara. Alabak esan zigun beti toki berera ez joateko... Dena den, ni asko ibilitakoa naiz. Senarrak nahiago zuen etxean gelditu eta ni bainuetxetara-eta joaten nintzen. Beti egiten nuen lagun bat. Ez naiz sekula koldarra izan eta horrek asko balio izan dit. Erroman ere izan naiz! Alde horretatik nahiko modernoak izan gara biok. Lan asko egin dut, baina asko bizitakoa eta gozatutakoa naiz. Biok irekiak gara".

Euren burua aurrerakoitzat duten arren, egungo bikoteak ezberdinak direla uste dute. "Gure alabaren etxekoa ikusita, bikote harremanek hobera egin dutela uste dut. Dena den, banantzen diren horiek ez dakit zertan dabilzan. Batak besteari ez dio errespeturik. Ez dute elkar ulertzen. Elkarrekin bizitzera joateko erabakia hartuz gero, elkarri entzun eta errespetatu behar da. Esfortzu horrek merezi du. Ezkondu aurretik ikusi nuen gero zer zetorren. Ordura arte baino hobeto bizitzea espero nuen eta ehun aldiz hobeto bizi izan naiz. Lan asko egin dut, baina bere orduetan eta jai egunekin", dio Doloresek.

Nikolas Etxaniz eta Nati Urrestarazu: “Ostegun eta igande arratsaldeetan bakarrik ateratzen ginen”



Nikolas Etxaniz azkoitiarra da jaiotzez eta Nati Urrestarazu emaztea, berriz, nafarra. Etxaniz urte eta erdirekin ekarri zuten Urretxura. Bere ama alargun gelditu zen, hamahiru seme-alabekin, eta lan bila etorri zen. Lehenengo Iparragirre kalean bizi izan ziren eta gero Eitzagara joan ziren. Nikolas bertan bizi izan zen ezkondu zen arte. Gazte-gaztetan morroi lanetan hasi zen eta gero Patrizion lan egin zuen, erretiratu zen arte.

Nati Urrestarazu Urdiainen jaio zen eta lau urterekin Urretxura ekarri zuten. Familia gerratik ihesi etorri zen. Aparizio

auzuneko etxe batean bizi izan zen. Senarrarekin ere han jarri zen, bidali zituzten arte. Eraikin hura egun auto denda dagoen tokian zegoen. “Alokairuan geunden eta mugituta zegoelako konpondu egin behar zutela esan zuten, baina gu bidali gintuzten eta ez zuten konpondu”, oroitzen du. “Gainera, konpontzeagatik milioi erdi pezeta kobratu nahi ziguten eta gero errenta igo behar ziguten”. Hori guztia ikusirik, Nikolas eta Nati Iparragirre kale amaierara joan ziren eta bertan bizi dira duela 30 urtetik hona.

Natik 15 bat urte zituen Nikolas ezagutu

zuenen. Senarrak berak baino lau urte gehiago ditu: egun 77 eta 73 urte dituzte. Ia 60 urte daramatzate elkarrekin, beraz. Natik ondo oroitzen ditu garai bateko kontuak. “Ostegun eta igande arratsaldeetan bakarrik ateratzen ginen. Orduan ez zegoen dantzatokitik eta halakorik. Ostegunetan paseatu egiten genuen eta igandeetan bandarekin dantza egiten genuen. Ez dakit zer ikusi nion. Dantzan eta halakoetan hasi ginen eta... Ez zitzaidan gaizki erori nonbait. Bera izan da bakarra!”

Garai hartan ez zen bikotez egun bezain errez aldatzen... “Egunero ate-

ratzen dira eta beti elkarrekin ibiltzen dira. Gehiegi. Gero, batzuk, ezkondu eta urtebete ere ez dute pasatzen elkarrekin... Ez dakit oraingoak gure horren ezberdinak diren edo zer arraio. Gure garaian ez zegoen halakorik, baina ez zaigu horren gaizki joan. Bikote harremanean gorabeherak izaten dira, baina ondo moldatu gara”.

Natiren gurasoek ere ondo hartu zuten Nikolas. Baita azken honen anaia-arrebek Nati ere. Izan ere, ama ere gazte joan zitzaien. Aurten bete dira 50 urte ezkondu zirenetik. “Urretxuko parrokian ezkondu ginen eta urrezko ezteiak ere bertan ospatu ditugu”, dio emazteak. Aipatu bezala, Nikolasek Patrizion lan egin zuen. Nati, berriz, etxeoandrea

Nati Urrestarazu:

“Pazientzia handia behar

da. Batak bestea

agoantatzen jakin

behar du”

zen. Horretaz gain, josi egiten zuen. “Bolada batean dezente ibili nintzen, baina bost seme-alaba izanda, etxeko lanarekin nahikoa nuen”.

Nati Urrestarazuk argi du zer behar den bikote berberarekin bizitza osoa emateko. “Pazientzia handia behar da. Batak bestea agoantatzen jakin behar du. Neurrian haserretu behar da, gehiegi estutu gabe”.

Soldata bakarrarekin bost seme-alaba

aurrera atera zituztela ikusita, noizean behin estutzeko arrazoirik izango zuten; baina gozatzeko tartea ere hartzen zuten. “Urtean behin lagunekin bazkaltzera joaten nintzen Donostiara. Behin loteria hartu genuen eta zortzirentzako hamar milioi pezeta tokatu zitzaigun. Etxea ordaintzeko ondo etorri zitzaigun! Gainontzekoan, senitartekoekin, Santa Barbarara joateko edo bazkariak egiteko ohitura genuen. Santa Barbarara igandero joaten ginen, bazkaltzera. Ondo pasatu dugu”, aipatu du Nati Urrestarazuk.

Bizitza osoa pertsona batekin ematea merezi duela uste du. “Niri ondo joan zait. Beste batzuei, ez dakit. Denetik egongo da. Gure etxean ez da banantzerik izan eta hobe hala. Izan ere, haurrak tartean direnean, penagarria da. Batzuei beti pertsona berarekin egotea harrigarria iruditzen zaie, baina guk hori ikusi dugu. Gure eredia hartzeko esaten diet”, dio Natik.

Azkenaldian senarra pattal samar du. “Lau bat urte izango direla gaixo dela eta 50. urteurrenera helduko ez zen beldur ginen. Gogorra izan da, ospitalean denbora asko eman baitugu. Gaixotu aurretik igandero kanpora joaten ginen eguna pasatzera: Donostiara, Zarautzera, Urbiara... Asko ibili gara. Orain seme-alabei ondo bizi direla esaten die eta eurek bera ere ondo ibilitakoa dela erantzuten diote. Ez bagenu ezer egin, penaz izango ginen. Ahal izan dugun bitartean, ordea, asko gozatu dugu. Senarra gazte erretiratu zen, gainera. Baratzera ere egunero joaten zen. Orain, berriz, bidegorrian ibiltzen gara. Urteek ez dute barkatzen...”.

Pedro Areizaga eta Mikaela Agirre baina za

60 urte baino gehiago pasatu dira Pedro Areizagak eta Mikaela Agirrek elkar ezagutu zutenetik. Biak 1924an jaiotak dira. Areizaga urretxuarra da, Etxaburu baserrikoa, eta Agirre Leitzakoa da. Bigarrena lanera etorri zen Zumarragara, Juanito Igartuaren tabernara. Areizaga tabernara joaten zen, “orain baino gehiago”, eta bertan ezagutu zuen elkar.

Handik hilabete batzuetara hasi ziren elkarrekin irteten. 21 urte zituzten orduan. Ondo gogoratzen dute nolakoak izan ziren orduko ezkongaien martxa. “Buelta batzuk eman eta etxera!”, dio Mikaelak. “Garai haietan ezin zen tabernetan sartu”, jarraitu du. Dantzaldiak behintzat izaten ziren. “Bai Zumarragan, bai Urretxun, musika banda zegoen. Zumarragakoak hiru pieza jotzen zituztenean Urretxura joaten ginen eta alde-rantziz”, oroitzen du Pedrok.

Bost urte eman zituzten paseatzen eta dantza egiten. Euren nobio garaia ez zen erraza izan, Mikaela Leitzara itzuli baitzen gurasoen etxera. “Ez zegoen gaur egun bezainbeste autobus eta tren. Andoainen Plazaolako trena hartzen zuen niregana etortzeko. Astean behin? Hamabostean edo hilean behin!”, dio.

Pedrok hiru bat urte eman zituen Leitzara joan-etorrian. Elkar maite zuten seinale... “Beste asko ere gu bezala ibiltzen ziren, e! Orduan ez zegoen bizikletarik ez motorrik... Garai

Mikaela Agirre: "Bizitza osoa pertsona berarekin emateak merezi du, baina da beti bake-bakean egotea eta pazientzia behar da"

Mikaela Agirre eta Pedro Areizaga, euren etxeko balkoian. Argazkia: Gotzon Aranburu.



hartan gogorra zen mutil laguna kanpoko izatea", aipatu du Mikaelak.

Ezkondutik zirenean Urretxura joan ziren bizitzera, Grupo San Sebastian delakora. Duela 23 bat urte, berriz, Zumarragako Urdaneta kalera joan ziren. Beloki pilotalekuaren ondoan dagoen etxera. Lehenago, Urretxun, bost seme-alaba izan zituzten.

Pedrok ez zuen Urretxutik Zumarragara joateko gogo handirik. "Etxe hau eginda zegoen eta bigarren solairuan gure iloba bat bizi zen. Garai hartan Urretxukoaren eta Zumarragakoaren artean liskar handiagoak zeuden eta hona etortzeko beldur nintzen, semearengatik

batez ere. Bi herrietan alde batetik bestera pasatzen ez ziren koadrilak zeuden", gogoratzen du.

Emazteak, berriz, etxetik aldatzeko gogo handia zuen eta berdin zitzaion Zumarragara joatea. Bere bertsioa eta senarrarena ez datoz guztiz bat... "Gure etxean eguzkiak gutxi ematen zuen eta hezetasun handia izaten zen. Ez nuen han bizitzen jarraitu nahi eta honek *ras-kazielosean* erosi nahi zuen etxea. *Hara joan? Ezta pentsatu ere!*, esan nion". Orduko hartan behintzat, emaztea nagusitu zen.

Senarra urretxuarra du, baina beldurrik gabe mintzo da urretxuarren eta zuma-

rragarren... arteko aldeez. "Zumarragakoak serioagoak dira eta urretxuarrak dibertitzeko prest daude beti. Garai batean Zumarraga dotorea goa zen. Puska batean, Urretxu oso gaizki egon zen".

Bizitzera Zumarragara joan ziren, baina lana beti Urretxun egin zuen Pedrok. 18 urtez Madayan aritu zen eta gero taillerria ireki zuen hilerri ondoan. 65 urterekin erretiratu zen eta ordutik bikoteak elkarrekin egoteko denbora gehiago du, noski. Euren bizimodua ez da asko aldatu, ordea. "Leitzara joatea eta bertan denboralditxo bat pasatzea gustatu izan zaigu beti", dio Mikaelak. Etxea dute bertan. "Gertu dago Leitza, e! Orain arte autoan joan izan gara, baina hilabete honetan senarrak gidatzeari utzi dio. Urte asko ditugu, agiria beritzea tokatzen zitzaion eta autoa bilobari eman diogu".

Beste bikote batzuk ez bezala, elkarrekin ibili izan dira beti. "Umeak genitue-nean, umeekin, eta koxkortu zirenean, bakarrik. Pixka bat ateratzea gustatzen zitzaigun. Igandetan Gabiriara, Itsasora, Santa Barbarara... joaten ginen", diote. Nola lortzen ote da, ordea, horrenbeste urte elkarrekin egotea? Urte hauetan guztietan "batzuetan haserre eta beste-etan bakean" egon direla dio Mikaelak txantxetan. "Zaila da beti bake-bakean egotea. Egun emakumeek eta gizonek irabazten dute soldata eta errazago banantzen dira. Lehen emaztea etxean

egotea zen arruntena". Pedrok "mugarik gabeko" pazientzia eta borondatea behar direla dio.

Elkar ondo ezagutzen dutela pentsa daiteke, baina Mikaelak ez du horren argi. "Ez dakit ba gehiegi ezagutzen dugun elkar...", dio barrez. Pedro ez da iritzi berekoa. "60 urte elkarrekin eman eta gero...". Emazteaz zer iritzi duen, nola ikusten duen, esatera ere ausartu da. "Niretzako, ona", aipatu du labur baina argi. "Nik ere hala esan beharko dut orduan...", dio Mikaelak.

Senarrak aldatu egin dela onartu du. "Gaztetan tabernan asko egoten ginen eta orain ezin egon bertan!". "Honi ez zaio gustatzen eta niri, berriz, asko. Kafetegira joatea gustatzen zait. Lagunek senarra eramateko esaten didate, baina taberna giroa ez zaiola batere gustatzen eta niri uzten didan

Mikaela Agirre:

"Egun gizonezkoek eta emakumezkoek irabazten dute soldata eta errazago banantzen dira"

bitartean ez zaidala inporta esaten diet", aipatu du emazteak.

Pedrok nahiago du paseatzera joan. "8.00etan jaiki eta erosketak egiten ditut. Gero buelta bat ematea joaten naiz, 11.00ak arte. Etxera itzultzen naiz eta hamarretakoa egiten dut. Etxean beti egoten da zer egin. Ondoren, baz-

Mikaela eta Pedoren gazte garaiko argazkia.



kaldu egiten dut. Bazkalostean telebista pixka bat ikusten dugu eta bueltatxo bat ematen dugu", azaldu du. "Gabiria aldeko bideetan ibiltzen gara. Gero, kafe bat hartu eta etxera", jarraitu du Mikaelak. Ohera ez dira oso berandu joaten. "Euskaldun telediariora ikusi eta ohera joaten naiz". Mikaela apur bat beranduago oheratzen da. "Seme-alaba guztiei 22.00ak bitartean jaikita egoten naitzela eta lasai deitzeko esana diet. Dena den, gauean ez du ondo lo egiten eta batzuetan telebista ikustera jaikitzen naiz", azaldu du.

Eurek bizitza ia osoa elkarrekin daramaten arren, banantzea erabakitzen dutenak ulertzen dituzte. "Bakoitzak bere bizimodua eramaten du eta... Urretxu eta Zumarraga txikiagoak zirenean gehiago kritikitzen zen, baina orain jendea ez da lehen bezainbeste kezkatzen ondokoarengatik", dio Mikaelak.

Bakoitzak nahi duena egin dezala, baina eurek bizitza osoa pertsona berekin emateak merezi duela uste dute. "Gure garaiko asko daude gu bezala. Merezi du, baina pazientzia eduki behar da. Separazioen kontua duela 20 bat urte hasi zen. Gure etxean bakarra tokatu da. Beste batzuk egin dute eta zer egingo dugu... Ezin ba hari esan elkarrekin jarraitu behar dutela", aipatu du Mikaelak. "Gu motzean ohitutakoak gara eta oraingoak luzean, nahi dutena egiten. Garai haietan eskutik helduta ibiltzea bekatua zen eta gaur, berriz... Aurreko batean eserleku batean jarri ginen eta alboko gazteak elkar jan beharrean hasi ziren", jarraitu du Pedro Areizagak. "Goazen hemendik, esan nion senarrari. Orain gauzak naturaltasun handiagoarekin egiten dira. Garai batean lotsa eta kritikak zeuden", amaitu du Mikaela Agirrek.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



ALBISTEAK

1. Osoko Bilkuran Arau Subsidiarioen onarpena atzera botatzea erabaki da.
(Politika / 09-18)
2. Gorka Azkarate bikain Hondarribian.
(Kultura / 10-01)
3. Gaztelekuk eginiko "Barraskiloa eta barea" karroza nagusitu da.
(Festak / 09-23)
4. Uxue Fernandez munduko txapeldun.
(Kirola / 09-17)
5. Diziplina erakustaldia jaiei amaiera emateko.
(Festak / 09-24)
6. Aparteko Osoko Bilkura deitu du Urretxuko Udalak gaurko.
(Politika / 09-18)
7. Antiguarekin plataforma aurkeztu zen atzo.
(Politika / 10-05)
8. Zumarragako web gunean datu base berria.
(Besteak / 10-08)
9. Fiskalak 10 eta 15 urte eskatu ditu bi herritarrentzat Udalbiltza auzian.
(Politika / 09-18)
10. Zumarragako udalaren gobernu taldeari igorritako gutun irekia.
(Iritzia / 09-18/Jon Mikel Intsausti)

BIDEOAK

1. Kantu Afariaren bideoak ikusgai.
2. Euskal Jaia 2007.
3. Anton Arbuluri elkarrizketa digitala.

AUDIOAK

1. Gorka Azkarateren bertsoak entzungai.
2. Gorka Hermosaren abestiak.
3. Appicultors taldearen lehen diskoa.

ARGAZKIAK

1. Iñauteriak 2007 (Intrepid Fox).
2. Gazteleku zaharreko argazkiak.
3. Ikastola Kutxa espazioan.

ALDIZKARIA

1. Jon Arana: mendizale amorratua (Zuek bai jakin!/129. alea).
2. Iñigo Igartza (Boteprontoan/129. alea).
3. Aspaldiko amatxo (Ipuina/129. alea).

GIDA

1. Eskelak.
2. Kantu Afariaren liburuxkaren deskarga.
3. Merkataritzako kartel ereduen deskarga.





egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Antio D'Or, opor eta ezkontzen hiria



Kaixo bixotzak:

Anne Igartiburu nauzue eta txutxumutxuak eta dantza lehiaketak alde batera utzi ditut Comunidad Autonoma Vascako bihotzean dagoen guneko zoragarrian eraikiko den opor eta ezkontza hiri berria zuei gomendatzeko.

Loiolak guneko gastronomikoa edo San Mamesek Poza kalea bezala, Ermiten katedrala deitutakoak ere bere handitasunak merezi dituen eraikinak izango ditu inguruan. Kokaguneko natural pribilegiatua, Oianguko golf zelaitik gertu, Madrid eta Barcelonarekin lotura zuzena abiadura handiko trenetan, espiritualtasuna eta gastonomia era bikainean uztartuko dituen aisialdirako Europako gunerik mistikoena izango da Antio D'Or, opor eta ezkontza hiria.


XII-XIII. mendeetako euskal estilo erromarrean egindako tenplua ardatz bezala hartuta inguruko eta urrutiko ezkongaien ametsak egia bihurtuko

dituen gunea izango da Antio D'Or opor eta ezkontza hiria.

Argazkietan oso dotore agertzeaz gain, bertan euren bizitzako eguniko zoragarriena ahaztezin bihurtzeko osagai guztiak izango ditu bertan: Eliza dotorea, betiko euskal sukaldaritza tendentzia berriekin fusionatuko dituen jatetxe cool eta fashiona, bazkari osterako diskoteka eta hurrengo eguneko ajeak botatzeko ibilbideak egiteko aukera... Eta Big Boda packa eskatzen dutenek, dantzari eta txistulariak, lore sortak, argazkiak, autobus zerbitzuak eta extra papera egingo duten mendizaleak kontratatzeke aukera ere izango du. Bertako herritarrak ere kontuan izango ditu eta uztailaren 2an biribilkiak eta txanpain epelaz nazkatu direnek "benetako festa bati dagokion" bazkaria egin ahal izango dute jai gunean bertan. Laster bertan elkar ikusiko dugulakoan... Hurrengora arte bixotzak.

Antiorako dauden egitasmoak ezagutzen al dituzu?

Zer iritzi duzu beraieez?



Xabier Indart



Udalaren proiektua ikusi dut eta ez zait batere gustatzen. Eraikin handiegia egin nahi dutelakoan nago. Nire ustez, taberna txiki batekin nahikoa litzateke. Bertan ezkontzak eta egin nahi dituztela esan didate, ordea.

Jorge Ibañez



Zer edo zer entzun dut, batez ere herritar plataformaren proposamenari buruz. Ingurunearen estetika hausten ez duten bitartean, ondo iruditzen zait zer edo zer egitea. Nire ustez, su hartu zuenaren antzeko zer edo zer egin beharko litzateke.

Virginia Agirre



Bai Udalaren eta baita plataformaren egitasmoak ezagutzen ditut. Udalarenak ingurunearen estetika hautsiko luke. Plataformarenak, berriz, ingurunea errespetatuko luke. Azken hauen proposamenaren alde sinatu dut. Taberna bat irekitzearekin nahikoa dela uste dut.

Jeronimo Casas



Plataformaren egitasmoa zer edo zer ezagutzen dut, baina ez oso gertutik. Ez dut bataren edo bestearen aldeko iritzirik argia. Jatetxea irekitzea ondo iruditzen zait, baina ez naiz ausartzen handia edo txikia komeni den esatera. Dena den, oso informazio gutxi dut.

Gaia: Irailetik udazkenera

Doinua: Mutil koxkor bat itsu aurreko

Aitor Lizarazu *Ginz*



Urretxuk jaiez janzteko badu
sekulako ahalmena:
karrozak egin, txoznak muntatu,
herritarren ekimena.
Txupinazoak lehertzen ditu
poza eta zoramena!
Euskal Jai eta Kuadrila Egunen
eman behar degu dena,
festak joanda sartzen baitzaigu
barruraino udazkena.

Euria hasi du urriarekin,
goitik behera, barra-barra...
busti gaitu ta desagertu da
aurpegiko irrifarra.
Segura aldean erauntsi batek
dena suntsitu beharra,
beste aldetik trumoiaren hotsa
hartzen ari da indarra...
Oraindik ere isuriko da
begietatik negarra.

Azaro eta abenduaren
hotzak ez digu axola,
Gaztelekuko egutegia
beteta dator, ta nola!
Kultur etxean elkartzen zaigu
herriko Bertso-Eskola,
irradi libre, musika talde,
eskubaloia ta futbola,
ez dute esango udazkenean
zer eginik ez dagola.

iritziz iritzi

Aintzane Arizmendiarieta



Bullying

Orain ere atzeritik datorren izena erabiltzen ari gara arazo zahar bati izena emateko. Nire garaian bazeuden ume baztertuak, baina denborarekin okerrera egin duen arazoa da. Nire seme-alaben garaian, baztertuak gain, jipoituak ere izan zitezkeen. Gurasoek, horren berri jakiten zutenean, haurra eskolaz aldatzen saiatzen ziren. Egun umea ez dute bere gelakoek bakarrik baztertzen: beste geletakoek ere zokoratzen dute eta herrian zehar zabaltzen dute horren berri. Beste umeak alboratua laguntzen ez ausartzea lortzen dute. Laguntzaileak izaera oso indartsua behar du gaitzetzeko guztiei aurre egiteko. Zer egin dezakegu gurasoek horrelako gauza bat gertatzen ari dela dakigunean? Jakin badakit bakar batzuek


eskerrak ematen dutela euren umei halakorik gertatzen ez zaielako, baina ez dutela ezer egin. Ez diete euren seme-alabei baztertuari lagundu egin behar zaiola esaten. Horrela ez dugu ezer konponduko. Hezitzaileak oso adi egon behar gara gure ikasgeletan eta baita eskolatik kanpoko ekintzetan ere. Gainera, baloreak landu beharko genituzke. Bestalde, ez da ahaztu behar gurasoak direla hezitzaile nagusiak. Etxean zer ikusi, hura ikasi. Gurasoengan gai honekiko axolagabekeria nabaritzen badute, nolatan jarriko dute euren burua arriskuan? Mundu hobea nahi badugu, jar dezagun denok gure aldetik: haurrei baloreak irakasteaz gain, guk geuk eguneroko bizitzan erabili ditzagun.

1990eko hamarkada hasiera

Zuhaitzaren Soinua txalapartari taldea

Hona hemen Zuhaitzaren Soinua txalapartari taldearen hastapenetan atera-tako argazkia. Ezkerretik eskubira: Javi Martinez, Angel Pardo, Jesus Dominguez *Buli* eta Pedro Narbaiza.





Herri Aldizkaria Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Aferia, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
 - Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
zm@euskalnet.net

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

BESTE BEGIRADA BAT

Irekiagoa eta, batzuetan, inkonformista ere bai.

Besteek egiten ez dituzten galderak egiten dituzu. Eta erantzun berriak lortu nahi dituzu. Sortzaileagoak.

Besteek arazo kontsideratzen dutena, zuk aukeratzat duzu.

Are gehiago, zure begirada ameslaria ere bada. **Bada beste begirada bat: zuk duzuna.**

Noticias de


Gipuzkoa

ZER IRAKURRI, HURA IZAN.



Ale honetan Urretxu eta Zumarragako obra batzuen bilakaera ikus dezakezue. Ezkerreko orrialdean Urretxuko Patroi eta Faktorekua etxeak ageri dira: ezkerrean 2006ko martxoan eta eskuinaldean egun. Eskuineko orrialdean, berriz, Zumarragako Zelai-Arizti parkea (iaz eta egun) eta apaiz etxea (2005ean eta egun) ageri dira.

Gotzon Aranburu



Koro Badiola: Heziketaren defendatzaile sutsua

Institututik pasatu diren ikasle ia guztiek ezagutzen dute Koro Badiola zumarragarra. Izan ere, ikastetxea ireki eta gutxira hasi zen bertan lanean eta duela bi urte jubilatzen. 40 urte pasatu ditu zientzia eskolak ematen. Horretaz gain, Goiargiko eta Zumarragako parrokia abesbatzako kidea da.

Koro Badiola, Joxe Mari Iparragirre institutuko jolastokian.



Zumarragar petoa zara.

Zumarragan jaio nintzen eta nire aita ere bertakoa zen. Nire ama ez da hemen jaioa, baina bere ama bai. Eitzagakoa zen. Mutrikuko batekin ezkondu zen eta Pasaiara joan zen bizitzera. Aitona beti gaixo zegoen eta beste giro bat komeni zitzaioela esan zioten. Errioxara joateko asmoa zuten, baina emaztea bertakoa zuenez, Zumarragara etorri ziren. Amak 16 urte zituen orduan.

Zenbat anaia-arreba zarete?

Zortzi anaia-arreba gara. Aitak, bere anaia-arrebekin, enpresa zuen. Aitonak meritu handia zuen. Berak eta bere anaiak zumearekin lan egiten zuten eta Alemaniara joan zen makina batzuen bila. Etxean beti izan dira zumezko aulkiak.

Nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Herrietako bizimodua oso atsegina zen. Mojetara joaten nintzen, guztiok elkar

ezagutzen genuen... 1940an jaio nintzen eta, egia esan, ez nituen gerra osteko gabeziak ezagutu. Gainera, haurrek gauzak beste era batera ikusten dituzte. Errazionamendua eta ogi beltza ezagutu ditut, baina baita gainontzeko guztiek eskura ez zituzten gauzak ere.

Nolakoak ziren orduko ikasketak?

Batxilergoa 10 urterekin hasten zen eta lehenago Donostian proba bat pasatu behar zen. Nik Medranotarrekin eman nituen lehen urteak, laugarren maila bukatu arte. Meritu handia zuten, klase berean lau mailatako ikasleak baitzituzten. Ahizpa bakar batek ematen zituen ikasgai guztiak! Medranotarrek eskaintzen zuten herrian batxilergoa ikasteko aukera bakarra, baina 14 urterekin kanpora joan behar izaten genuen. Hori dela eta, oso gutxi egiten zuten batxilergoa. Medranotarrek 40 bat ikasle izango zituzten... Lehen hezkuntza, berriz, gehienek egiten zuten. Ondoren, mutilek lanbide heziketa ikasten zuten eta neskak bulegoetan lan egiteko prestatzen ziren: mekanografia, kontabilitatea, takigrafia... ikasten zuten.

Non bukatu zenuen batxilergoa?

Donostian, nire gurasoek etxetik gertu egotea nahi baitzuten. Barnetegi batean egon nintzen eta hilean behin etortzen nintzen etxera: trena dagoelako eta gurasoen baimena nuelako. Garai hartan, hiru hileko osoa barnetegian ematea zen ohikoena. Unibertsitate ikasketak Zaragozan egin nituen eta hiru hilabete ematen nituen etxera etorri gabe.

Zergatik joan zinen Zaragozara?

Euskadin ez zegoen ezer. Valladolideko Unibertsitate Barrutiaren menpe geunden. Jada institutuan nengoela, Valladoliden bilera izan genuela gogoratzen dut.

Argi al zenuen kimika ikasi nahi zenuela?

Ez. Garai hartan ez zegoen ezer argi. Laugarren maila arte ikasten genuen eta etxean aukera ematen baziguten bakarrik jarraitzen genuen. Anaia-arreba ia guztiok Unibertsitate ikasketak egin genituen eta bagenekien horregatik pribilegiatuak ginela.

Zer moduz moldatu zinen Zaragozan?

Barnetegi batean egon nintzen. Garai hartan neska bat pisu edo pentsio batera joatea pentsaezina zen. Pentsiotara mutilak joaten ziren. Bestalde, garai batean toki

“Instituari esker Urretxu

eta Zumarragan

Unibertsitate

ikasketak dituen jende

asko dago”

gutxi izaten zen Unibertsitateetan eta oso zaila zen sartzea. Askok urteak ematen zituzten akademietan Unibertsitate sarrera prestatzen. Zaragozara heldu nintzenean, nire ikasgelan mutil asko suertatu ziren. Izan ere, ingeniaritza egin nahi zutenak zientzietako ikasturte bat egitera behartu zituzten. Aldaketa handia izan zen niretzat: 17 urte nituen, mojen barnetegi batetik heldu nintzen eta 20 urtetik gorako mutilez inguratuta nengoen...

Non hasi zinen lanean?

Ikasketak bukatu ostean, laborategi batean aritu nintzen. Etxetik kanpo urte asko neramatzen eta halako batean etxera

itzultzea erabaki nuen. Atsekabe handia hartu nuen Urretxuko institutu berrian niretzat tokirik ez zegoela jakin nuenean. 1966an ireki zen eta nire ahizpa batek bertan tokia lortu zuen, baina ezkondu zenean Alemaniara joan zen. Nik, berriz, egunkarian Azpeitiko institutuan zientzia irakaslea behar zela zioen iragarkia ikusi eta deitu egin nuen. Egia esan, ez nekien bertan institutua zegoenik. Harritzekoa zen, Urolako trena genuenez, inguru hartara askotan joaten baikinen. Nire ustez, Falangearen Frente de Juventudes delakoarekin lotura zuen eta horregatik ez zen ezaguna. Urtebete bakarrik eman nuen bertan eta jarraitzeko asmoa nuen, baina hemengo institutuan tokia lortu nuen.

Alde handia nabaritu al zenuen Azpeititik Urretxura?

Azpeitian jendea euskalduna zen eta errespetu handia zien irakasleei. Dena den, Urretxukoan ere oso arazo gutxi izan dira urte hauetan guztietan. Jatorri eta kultura ezberdineko jendea zegoen eta horrek guztien integrazioan lagundu zuen.

Institutuaren sorrera ederki asko ezagutzen duzu.

Historia luzea du. Egungo lizeoa lehen institutua zen. Zumarragako alkateak bere aukera herriko ur hornidura hobetzeko edo institutua irekitzeko balia zezakeen eta hezkuntzari lehentasuna eman zion. Hori dela eta, uraren arazoa 10-15 urtez luzatu zen Zumarragan. Herritar heziek uraren arazoa azkar konponduko zutela pentsatu zuen. Ministerioak herri garrantzitsuetan bakarrik ematen zuten institutua irekitzeko baimena. Udalek lursaila utzi behar zuten eta Hezkuntza Ministerioak eraikina egiten zuen. Hemen, herri txiki samarra izanik, erraztasun gehiago eman



Koro Badiola, eskuinaldean, 80ko hamarkada hasieran ikasleekin Errioxara egindako bidaia batean.

zituzten baimena lortzeko. Lursaila etxebizitza sustatzaile batek utzi zuen eta eraikina Orbegozok egin zuen.

Nola izan zen hori?

Herri erdian lursaila behar zen eta hori hautatu zen. Artasoro bat zegoen, nire aitaren familiarena. Lurra erosteko asmoa azaldu zieten eta, alde batetik desjabetzearen beldur zirelako eta bestetik ikastetxe bat egiteko zelako, bere salneurria baino merkeago saldu zuten. Irungo Contratas y Viviendas enpresak erosi zuen 10.000 metro koadroko lursaila. Enpresak udalekin hitzarmena sinatu zuen: 6.000 metro institutuarentzat utzi zituzten eta trukean udalek etxe orratza egiten utzi zieten. Gainera, udalek Zumarragara zubia egiteko konpromisoa hartu zuten. Zergatik? Zumarragan Urretxun baino askoz ere gehiago eraikitzen zen eta etxe orratzaren ondoan Zumarragara pasoa eginez gero, eraikin horren balioa asko igotzen zen. Kontuan ere izan behar da garai hartan hura ez zela Urretxu erdialdea.

Zubia beranduagoa egin zen, ordea.

Itarte etxea emakume batena zen eta zubia dagoen tokian lorategia zuen. Hil arte hura uzteko eskatu zuen eta horrek zubiaren eraikuntza atzeratu egin zuen.

Eraikina Orbegozok egin zuela diozu.

Zortzi milioi pezeta kostatu zen, baina beranduago dirua berreskuratu zuen. Ministerioak, dena eginda eman ziotenez, institutua egiteko baimena eman zuen. Eurek langileen soldatak ordaindu behar zituzten eta kudeaketaz arduratu.

Institutua berehala txikia gelditu zen.

Zergatik eraman zen Santa Barbara bidera jatorrizkoa handitu beharrean?

Ministerioak bigarren urtean 40 milioi pezetako inbertsioa egiteko asmoa zuen, baina horretarako lurra eta eraikina utzi behar zizkioten eta hori ezinezkoa zen. Zergatik? Contratas y Viviendasek ez zuelako lurra eman nahi zubia eraiki aurretik. Hori dela eta, Udalak Santa Barbara bideko lursaila aurkitu zuen.

Nolakoak izan ziren institutuaren lehen urteak?

Berehala txiki gelditu zen eta handitzerik

ez zegoenez, barrakoiak jarri ziren. 1.200 ikasle izan genituen.

Gora joan behar zenutela esan zizutenean, nola hartu zenuten?

Goikoa behekoa baino askoz ere toki hobea da eskolak emateko. Beheko leihoelek errepidera ematen dute eta ireki bezain pronto ez da ezer entzuten. Goikoa urrun dago, baina ohitu egin ginen.

Zein izan zen institutuaren ekarpena?

Lehen 14 urterekin hemendik atera beharra zegoen. Hori izan zen, hain zuzen ere, institutuaren ekarpen nagusia: guztiok berdindu gintuen. Institutura, ikastolara ez bezala, oso jende ezberdina joaten zen. Hasieran mundu guztia joaten zen, baita Orbegozoren alaba ere. Institutuari esker bi herri hauetan Unibertsitate ikasketadun jende asko dago.

Zer eman dizu zuri institutuak?

Jende asko ezagutzeko aukera eman dit, bestela ezagutuko ez nukeena.

Zertan aldatu da irakaskuntza urte hauetan guztietan?

Seguru aski, hasieran ikasleei zuka hitz egingo nien. Izan ere, niri ere hala hitz egiten zidaten irakasleek. Guk jasotako hezkuntza oso murriztailea izan da eta horrek asko baldintzatu gaitu. Espresibitate gutxi-koak gara eta idazketa lanak egiteko zailtasun handiak ditut. Egun, berriz, haurrei espresiboak izaten eta euren sentimenduak adierazten irakasten zaie. Askoz ere askatasun handiagoa dago. Fakultatera joateko garaia heltzen denean, intelektualki ez daude lehen bezain heziak, baina psikologikoki eta sozialki askoz ere solteagoak dira. Pentsa, alde batetik mutilen institutuak zeuden eta bestetik neskenak. Medranotarrak aurrerakoiak ziren, neska eta mutilak elkarrekin baitzituzten.

Bestalde, egungo ikasleek ez dute ikasteko aukera baloratzen. Irakasleei mesede egiten ari direla uste dute. Gizarteak familiaria eta hezkuntzak baino eragin handiagoa du eurengan.

Gizartea aldatu dela ikusirik, hezkuntzan eman zenituen azken urteak ez al zitzaizkizun gogorrak egin?

Momentu onean jubilatuta nintzen. Azkeneko urteetan, gainera, zorte handia izan nuen. Ikasle nagusienak izan nituen eta gutxi, gainera. Gatazkatsuenak 14 eta 16 urte bitartekoak dira eta ez zitzaizkan horiei eskolak ematea tokatu.

Azkenerako ez al zen nekagarria gazteen artean ibiltzea?

Gazteen artean ibiltzea ona da, baina azkenerako neure burua beraiengandik oso urrun ikusten nuen. Dena den, azkenaldi honetan irakasle gazteek ere euren burua ikasleengandik urrun ikusten dutela uste dut. Lehen aldaketak hamar urtetan behin ematen ziren eta orain bost urtetan behin. Krisiak ere izan nituen. Garai batean greba asko izan genituen eta irakaskuntza uztekoan izan nintzen.

Zeintzuk dira hezkuntzaren egungo arazo nagusiak?

DBHko azken urteak oso gatazkatsuak dira. Dena den, beti egon dira ikasle onak eta txarrak.

Zer irakasgai ematen zenituen?

Fisika eta kimika, batez ere. Garai batean baita matematika ere.

Irakaskuntza gustatzen al zaizu?

Bai, baina ez nuen argi irakaslea izan nahi nuenik. Ez nuen matematika ikasi irakaskuntzarako bakarrik balio zuelako eta irakaskuntzan bukatu nuen. Garai hartan Unibertsitate ikasketak zituztenentzat lana zegoen, baina ez neskenentzat.



Koro Badiola, beheko ilaran, 80ko hamarkadan lankideekin ateratako argazki batean.

Emakumezkoak oso zaila genuen enpresa munduan sartzeko. Ikaskide gizonetako enpresan munduan lanpostu onak lortu zituzten eta nik irakaskuntzan bukatu nuen. Gustura aritu naiz.

Musika ere gustuko duzu.

Hala da. Goiargi abesbatza sortu ondorengo urtean edo bi urtera hasi nintzen. Zumarragako parrokiako abesbatza ere abesten dut. Antonio Reyk Goiargi utzi eta parrokiako abesbatza sortu zuenean, Goiargiko zumarragarroi deitu zigun.

1a 25 urte daramatzazu kantuan.

Gustura zabilzan seinale.

Askok gustatzen zaigu eta ondo pasatzen dugu. Astean bi egunetan 21.30etik 23.00etara joatea gogorra da, batez ere lanean ari direnentzat. Betebeharra da. Horretaz gain, Kursaal fundazioaren musika klasiko kontzertuetara eta Musika Hamabostaldira joaten naiz. Lehen autoan joaten nintzen, baina orain trenean.

Lehen gutxi izango zineten gidatzeko baimena zenuten emakumeak.

Nire aitak behartu gintuen. Ikasi genezan

gogo handiena azaldu zuena, berriz, ama izan zen. Askok dut gurasoei eskertzeko. Herrietan batzuk besteen gainetik egoten ziren, baina Unibertsitatean bakoitza balio zuenarengatik epaitzen zen.

Zinea ere asko atsegin omen duzu.

Santa Anastasia jaiak Zinemaldira joateko baliatu izan ditut beti. Areto komertzialetan eskaintzen ez dituzten filmak ikusteko aukera dago. Bestalde, bertsio orijinalak ikustera ohitzeko ere ondo dago. Garai batean, hiru egunetan hamar film ikusten nituen. Aurten bost besterik ez ditut ikusi.

Jubilatu ondoren lehen baino denbora gehiago izango duzu.

Ez dakit ba... Orain bizitza lasaiago hartzen dut. Gainera, emakumeok beti dugu zereginen bat. Amarekin bizi naiz eta garai batean berak egiten zituen lanak egiten ditut. 94 urte ditu, baina osasunez ondo dago. Batzuetan sukalde lanetan aritzen da eta egunero mezatara joaten da, bakarrik. Telebistako kirol saio guztiak ikusten ditu! Ni ez naiz horren futbol zalea, amak eta anaiak nazkatu egin bainaute.

Javier Arratibel: Herriko kantarien gidaria

Javier Arratibelek, Urretxu eta Zumarragako Goiargi abesbatzaren zuzendariak, ez du sekula ahaztuko 2007ko urria. Izan ere, joan zen larunbatean ezkondu egin zen. Gainera, abesbatzak kultur etxean egoitza estreinatu du eta eurek antolatzen duten Udazkeneko Musika Zikloa hasi da. Egun garrantzitsuak bizi ditu Arratibelek. Are gehiago Goiargik aurten 25 urte betetzen dituela kontuan hartzen bada.



Javier Arratibel, abesbatzeko bere kideekin, egoitza berrian entsegua hasi aurretik.

Nolatan duzu halako musika zaletasuna?

Gurasoek bultzatuta hasi nintzen, haurra izanda ez baita horren arrunta norbere kabuz bide hori hartzea. Behin hasiz gero, zaletasuna hartu egiten da. Gurasoak ez dira musika munduan ibili, baina zaletuak dira.

Zer ikasketa egin zenituen?

Solfeoa, pianoa, korala, armonia eta zuzendaritza ikastaroak egin nituen. Pianoa eta organoa jotzen ditut.

Nondik nora ibili zara musika munduan?

15 urterekin Goiargi abesbatzan abesten hasi nintzen. Gazteena nintzen, baina orduan orain baino askoz ere gizonetzko gehiago zeuden. Goiargi ahots zurien abesbatza zen hasieran. Beranduago, mistoa bihurtu zen. Gizonezkoak 1984ko urria hasieran hasi ziren eta ni urria bukaeran sartu nintzen. Oso ondo hartu ninduten.

Non gehiago aritu zara?

Zuzendaritza ikastaroetan beste abesbatzetako jendea ezagutu nuen. Donostiako San Inazio abesbatzarekin eta Capilla Peñafloredarekin abestu nuen. Orfeoiairen hainbat egitasmotan ere parte hartu nuen. Orain Ondore koruan abesten dut. Nerea Urkiola emazteak ere Ondoren abesten du.

Parrokian organoa jotzen duzu.

Geroz eta gutxiago. Antonio Rey zenak parrokiako abesbatza zuzentzen zuen garaian, nik bertan abesten nuen. Zuzentzea eta organoa jotzea, aldi berean, ezinezkoa denez; berak abesbatza zuzentzen zuenean, nik organoa jotzen nuen. Egun, jo baino gehiago abestu egiten dut.

Bestalde, 1993tik hona Goiargiren zuzendaria zara. Nolatan hartu zenuen zuzendaritza?

Abesbatzaren ekimenez hasi nintzen zuzendaritza ikastaroak egiten. Garai hartan zuzendaria zen Xabier Barriolaren eskutik joan nintzen. Ordurako ordezkapenak egiten nizkion. Zuzendariz aldatu beharra suertatu zenean, deitu egin zidaten. Naturala izan zen.

Zein izan da zure ekarpena?

Besteek esan beharko luketela uste dut. Taldearen maila mantentzen saiatu naiz. Entseguetan elkartzen garen bakoitzean,

“Betiko gauzak modu ezberdinetara esan eta egin behar ditut jendearen motibazioa bizirik mantentzeko”

ahalik eta lanik onena egiten saiatzen naiz. Taldeko lanak sekretu bakarra du: gogor eustea. Jendearen gainean egon behar da eta kontzentrazioa lortu behar da. Egitasmo interesgarriak bultzatu behar dira, partitura politak landu... Egiten den hori aberasgarria izan behar da jendearentzat. Denok ikasten dugu.

Abesbatzak une gozoa bizi al du?

Baietz uste dut. Helburua beti sasoiaren egotea izaten da, bai ahotsari dagokionez eta baita musikari dagokionez ere. Dena den, boladak izaten dira. Pertsonak gara eta guztiok gure kezkak ditugu. Batzuetan jende gutxiago etortzen da entseguetara,

besteetan emanaldi gutxi ditugu... Horren guztiaren arabera, taldeko giroak gorabeherak izaten ditu. Une gozoa bizi dugu: gure arteko giroa ona da, badakigu zertara joaten garen eta lasai joaten gara. Gustura lan egiten dugu. Gure helburua gozatzea da, baina badakigu horretarako lan egin behar dela. Niri dagokidanez ere, oso gustura nago. Nire lana ondo ezagutzen dut eta badakit betiko gauzak modu ezberdinetara esan eta egin behar ditudala jendearen motibazioa bizirik mantentzeko.

Zeintzuk dira herri mailako abesbatza amateur bat zuzentzearen alde onak eta txarrak?

Ez diot alde txarrik ikusten. Zuzendariaren paperak ez du aparteko zailtasunik edo arriskurik. Kirol talde bat entrenatzea bezala da. Taldea denok osatzen dugu eta denok taldea ahalik eta ondoen aritu dadin lan egiten dugu. Nire ardura nola lan egin behar den zehaztea eta jarduna koordinatzea da. Halako talde handi batekin lan egiteko, gustuko dudana egiteko aukera edukitzea da onena. Zuzendariak abeslariak baino lan handiagoa izaten dute, entseguak prestatu behar baitituzte. Batzuetan lana pilatzen zait eta itota iristen naiz, baina amateurrek gara eta jendeak ondo ulertzen du. Denok dakigu zer eman dezakegun eta ez diogu elkarri gehiago eskatzen.

Zer nolako etorkizuna du abesbatzak?

Jendearen eskutan dago. Niri taldeak jarraitzea eta berritzea gustatuko litzaidake. Gaudenok ez gara betiko eta jende berria hartzeko irrikatan gaude. Talde guztiek geroz eta jende gutxiago dute. Ikusi egin behar etorkizunak zer dakarren!

Herritarrek zuek egiten duzuen lana eskertzen dutela uste al duzu?

Baietz uste dut. Jendea emanaldietara joaten da eta bere gertutasuna sentitzen dugu. Emaidza baloratzen dute, baina ez dakit atzean dagoen lanaren berri duten. Jendeak emanaldez gozaten du, baina gainontzeko lan guztia ez da ikusten. Eskenatokira igo eta abestearekin ez da nahikoa. Batzuek horretarako erraztasuna dute, baina gehienok ikasi egin behar izan dugu. Abesbatzako kideen %90ak ez du musika ikasketarik eta poliki-poliki ikasi behar izan dute.

Zein izan da Goiargi abesbatzaren ekarpen nagusia?

Herrian abesbatza dagoenetik, kontzertu guztietara jende gehiago joaten da. Horrek kultura munduari eta herriari gure ekarpena egin diogula esan nahi du. Bestalde, gainontzeko koruen kontzertuetara geroz eta jende gehiago joaten dela ikustea guretzat ere pozgarria da.

Abesteaz gain, Udazkeneko Musika Zikloa antolatzen duzue. Aurtengo ekitaldia hogeita bigarrena da eta igandean hasi zen.

Urtetik urtera gora egin du eta hori oso garrantzitsua da Goiargiko kideontzat. Urtero egitarau ona antolatzen saiatzen gara, baina ez dago beti gure esku. Egitarau bariatua egiten saiatzen gara. Lau abesbatza etortzen dira eta emanaldiak bata bestearengandik ezberdinak izatea nahi dugu.

Zer diozu aurtengo egitarauaz?

Sostoa abesbatzak euskal konpositoreen lanak eskaini zituen. Oso berezia eta interesgarria izan zen, abesti asko ez baitziren ezagunak. Bigarren emanaldia guk eskainiko dugu. Iaz, Mozarten



urteurrena ospatzeko, erlijio-kantex osatutako egitaraua prestatu genuen. Aurtengoa, berriz, oso bestelakoa da. Udan Gorlizko habanera jaialdian parte hartu genuen eta aurtengo programa musika mota horren ingurukoa da. Hirugarren kontzertua Tolosako lehiaketan parte hartuko duen Esloveniako talde batek eskainiko du. Urtero ekartzten dugu Tolosara etorritako talderen bat. Maila horretako lehiaketetan munduko onenek bakarrik parte hartzen dute. Azkeneko kontzertua ere oso berezia izango da. Abesbatzak instrumentuen laguntza izango du. Taldea oso ona da eta muntaia oso polita.

Emanaldi askotara joaten al zara?

Saiatzen naiz, baina ez da erraza. Izan ere, denbora behar da. Dagoeneko Tolosakoekin harreman estua dugu. Duela asko ekin genion bertatik abesbatza bat ekartzeari. Gainera, aspalditik joaten naiz bertako lehiaketako saioak entzuztera. Tolosako lehiaketa mundu mailako erreferentzia da eta guri asko ikasteko aukera eskaintzen digu.

Denbora falta aipatu duzu. Aurtengoa, Goiargiren 25. urteurrena ospatzen ari zarete.

Taldearen ibilbidea erakutsiko duen erakusketa prestatu nahi dugu. Ia dena azaltzea nahi dugunez, materiala jasotzeko eta sailkatzeko denbora behar dugu. Bestalde, liburu bat eta DVD bat ere kale-ratu nahi ditugu. Dagoeneko horietan lanean ari gara.

Aurtengoa oso urte berezia da zuentzat. Izan ere, urteurrena ospatzeaz gain, kultur etxe berriko egoitza estreinatu duzue.

Duela bi aste entseatu genuen lehenengoz bertan eta gustura aritu ginen. Inpresioa oso ona da, baina bertara egokitu beharra dugu. Zumarragako Udalak lokal horretan lehentasuna dugula esan digu. Orain arte, entsegu lokala beste talde batzuekin partekatzen genuen eta lanean hasi aurretik gure beharretara egokitu beharra genuen: aulkiak jarri, pianoa atera... Hemendik aurrera heltzea eta abesten hastea bat izango dira.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61

Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
SOLINO OPTIKA

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganoso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bidea - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak


☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA


ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



Jaurereta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Labeaga, 9 Tf: 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurriira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Otamotz

Herri Aidizkaria
TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

ALBERTO MÉNDEZ

Los girasoles ciegos



Alberto Méndez

Los girasoles ciegos

Ez nuen irakurri nahi. Ezta 2005. urtean Premio Nacional de Narrativa eman ziotenean ere, gerra zibilaren gaiarekin aspertuta nengoelako. Baina han-hemenka entzuten nuen liburu hau ezberdina zela, berezia... Eta hala da benetan. Lau istorio harilkatzen dira, zein baino zein tristeago, ederrago eta hunkigarriagoa. Lauretan galtzailak dira protagonistak: kapitain frankista, poeta gaztea (agian kontakizunik lazgarrie-

na), preso errepublikarra, eta armairuan izkutaturik bizi den *satorra*. Ideologiaren gerra galduko dute baina, nor bere eran, duintasunarena irabaziko du. Liburua maisutasunez idatzita dagoenez, emozio biziak piztu, irudi zirraragarriak iradoki, negarra eragin edota oilo-larrua jarriko dizu. Zinez, liburu bikaina eta gogoangarria, bizitza osorako arrasto sakona uzten duten horietakoa.

Pello Biain


Audience

Trying wings on roots

Euskal Herrian ez dute parekorik eta hemendik kanpo ere, nekez. Halere, tentuz eta presarik gabe barneratu behar da Audiencen soinua. Aurrenekoz Ondarroan ikusi nuen eta, egia esan, ez zuen nigan ezer berezirik sortu. Gerora bai, ordea. Eta harrapatzen baldin bazaitu, zureak egin du. Izan ere, sustraietatik ateratzen den indarra du bere musikak. Rockaren, bluesaren edota countryaren sustraiei tira egin eta

gauza ederrak egiten ditu. Hard-corearen bidea aukeratzen duenean, batez ere (Fugaziren antza ere badu tarteka). Bere estiloan, baina abangoardiaren izenean eta jarrera undergroundekin. Gitarrak, bateria, baxua, pianoa, biolina edota tronpetak erabiltzen dituzte. Hirugarren diskoa atera berri dute: *Trying wings on roots*. Oso gomendagarria zuzenean aditzeko eta ikusteko.

Igor Susaeta



Florian Henckel-Donnersmarck

La vida de los otros

Zuzendariaren esanetan bere haurtzaroko oroitzapenak dira filma hau egitearen arrazoi nagusia. Gurasoak aintzinako ekialdeko Alemanian jaio ziren eta maiz pasatzen zen Berlineko beste aldera. Momentu haietan helduen beldurra sentitu zezakeela dio, bai gurasoen aldetik baita bisitatzen zituzten senitartekoen aldetik ere. Esperientzia hura gabe gai hau dagokion moduan jorratzea ezinezkoa litzaioke. Pertsonaiak benetako

hainbat pertsonatan oinarrituta daude, baina hau ez da fikziozko estalki baten azpian benetazko istorioa kontatzen duen pelikula. Pertsonaiak eta gertaerak apropos definitu gabe uzten dira. Florianentzat garrantzitsua zen zehaztasun historikoetan ez galtzea. Bere asmoa jende errearen istorio bat kontatzea zen bai, baina batik bat emozioen ikuspuntutik kontatzea.

ButaK 21 zineklub taldea

Ostadar mendi taldea: 25 urte... eta gehiago?

Ostadar mendi taldeak 25 urte bete ditu. Urte hauetan guztietan makina bat irteera antolatu dituzte eta mendizaletasuna bultzatu dute. Javier Fernandezekin, Luis Albiuarekin eta Jon Mikel Intsaustirekin hitz egiten izan gara elkartearen lehenaz, orainaz eta geroaz.





Urretxun eta Zumarragan, Euskal Herriko gainontzeko tokietan bezala, mendizaletasuna aspaldiko kontua da. Ostadar sortu aurretik, Oargui arduratzen zen irteerak antolatzeaz. Azken hau desagertu zenean, elkarte berria sortu zen eta Fernandez izan zen lehen presidentea. "Oargui gainbeheran zen eta urte hartan Gipuzkoako Oargui ia guztiak desagertu ziren. Goierriren mendi saila ere ez zebilen batere ondo eta, beraz, federatu agiria lortzeko Legazpiko Izadi Zaleak elkartera joan behar genuen. Uda horretan bertan gure mendi taldea sortzea erabaki genuen. Nirekin batera, Aleman, Alex Orbegozo, Kalili, Gaztañaga... izan ziren bultzatzaileak. Egunkarian oharra argitaratu zen eta bilerak izan ziren. Jende askok erantzun zuen".

Udalek begi onez ikusi zuten ekimena.

"Urretxuko Udalak ere dirulaguntza ematen zigun eta lokala uzteko asmoa ere bazuen. Zumarragako Udalak, urretxuarrek egoitza utzi behar zigutela jakin behar zigutela jakin bezain pronto, lokala eskaini zigun", oroitzen du Fernandezek. "Herri batean edo bestean egon, hasieratik oso argi genuen Ostadar bi herrietakoa zela. Berdin ziztaigun lokala alde batean edo bestean izan", aipatu du Albisuak.

Hasieratik, bota duten arte, Luistarren etxean izan dira. Orain, kultur etxera joan dira. "Luistarren etxean solairu osoa guretzako genuen. Bertan diapositiba proiektzioak eskaintzen genituen eta horretarako horma zuriz margotu genuen. Logotipoa ere paretan margotu genuen", dio Fernandezek. Logotipoa nork diseinatu zuen ere gogoratzen du. "Jesus Mari Orbegozok eta bere arreba egin zuten".

Izena, berriz, asanblada batean hautatu zen. "Norbaitek proposatu zuen eta inongo arazorik gabe onartu zen. Garai hartan asanbladek indar handia zuten. Lehenengoak, elkarte sortu aurrekoak, Legazpi kalean egin genituen: Alex Kirolak dendaren behin-behineko lokalean", aipatu du Albisuak.

Garai bateko irteerak arrakasta itzela zuten. "Oso pozgarria zen. Batzuetan bi autobus betetzen genituen. Koadrila osoak joaten ginen eta nirean, adibidez, 20 bat lagun ginen. Hilean behin irteera bat antolatzen genuen, baina horretaz gain beste hainbat ibilbide antolatu ditugu beste elkarte batzuekin batera", azaldu dute Fernandezek eta Albisuak.

Fernandezek mendizaletasuna "erabat" aldatu dela dio. "Lehen taldean joaten ginen, autobusetan. Orain, bakoitza bere aldetik joaten da, bere koadrilarekin, etaez du mendi taldeez ezer jakin nahi. Garai batean ez zegoen horrenbeste auto eta Aralar eta Aizkorri baino urrutirago joan nahi bazen, Ostadarrekin joan behar zen. Ostadar sortu aurretik, ezagunen autoak eta trena erabiltzen ziren. Gure taldeak Goldenek bezainbeste bikote elkartu ditu ia...".

Urteurreneko ekitaldiak prestatzeko garai bateko argazkiak ikusten aritu dira eta nostalgia piztu zaie. "Diapositibetan agertzen den jende askoren berri ez dut dagoeneko. Bestalde, norberaren burua 25 urte gazteago ikustea ere...", dio Fernandezek.

Aspaldiko urteetan, berriz, beti jende berak parte hartzen du irteeretan. "Urtarrila aldean bikote berriren bat etortzen da, baina martxorako etortzeari uzten diote. Kontuan izan behar da urte hasiera

txangoak direla hemendik gertuen egiten direnak", dio Albiuak.

Ostadarrekoek, mendi irteerak antolatzaz gain, beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte: mendiko materiala uzten dute, liburutegia ere badute, Mendi Astea antolatzen dute... "Orientazio eta eskalada ikastaroak antolatu ditugu, jendea eskiatzera eraman dugu, haurrentzat txangoak antolatu ditugu, rokodromoak guk prestatu genituen, Sugandila eskalada taldeari babesa eman genion... Jende gaztea inplikatzan saiatu gara", oroitu du Luis Albiuak.

Urte hauetako guztietako garrantzitsuena jendearen arteko harremana dela diote hirurek. "Beti giro ona izan dugu. Aberasgarriena gure arteko harremana da. 25 urte eta gero, Ostadarri esker, oso

*"25 urte eta gero,
Ostadarri esker,
oso ezberdinak garen
pertsonak
lagunak gara"*

ezberdinak garen pertsonak lagunak gara. Hori da garrantzitsuena. Bestalde, mendizaletasuna bultzatu dugu. Horretarako hamaika ordu sartu ditugu". Elkartearen funtzioa ere aldatu dela diote. "Mendira joateko sortu genuen, baina geroz eta tramite gehiago egin behar ditugu. Paper artean mendian baino denbora gehiago ematen dugu", aipatu dute. Dagoeneko 300 bat irteera

egin dituzte. Euskal Herrian ez ezik, Pirinioetan, Picos de European eta Alpeetan ere izan dira.

Gehien gogoratzen duten pasadizoa hasi eta berehala izan zen. "Bigarren edo hirugarren txangoan autobusa behar baino jende gutxiagorekin itzuli zen. Belaguara joan ginen eta dagoeneko autobusetik oso gertu geundela, lainoa sartu zen. Ez zen piperrik ikusten eta sei bat lagun galdu egin ziren. Nafarroako suhiltzaileen eta Frantziako jendarmeen laguntza izan zuten eta El País egunkarian albistea etorri zen, galdutako guztien izenekin. Sekulako barreak egin genituen".

Egun askoz ere zailagoa da mendian galtzea. "Lehen nola hala joaten ginen. 1990etik hona askoz ere hobeto prestatzen ditugu irteerak. Luismi taldean sartu zen eta txangoak hobeto prestatzeari ekin zion. Ibilbidea bakarrik edo lagun batekin egiten du taldearekin joan aurretik", diote.

Urteurrena ospatzeko asmoa dute. Hasteko, azaroan Mendi Astea izango da. Aurten bost emanaldi izango dira eta taldeko kideren batek 25 urte hauetako laburpena eskainiko du. Argazki erakusketa bat prestatzeko eta pasadizoen liburua argitaratzeko asmoa ere badute.


Etorkizunean, ordea, zer ospatu gutxi izango dela uste dute. Fernandezek elkartek bere bidea amaitutzat eman beharko lukeela uste du. "Aldaketa sakona gertatzen ez bada, Oarguiren moduan bukatuko dugu", dio. "Jendea federatze besterik ez da elkarrekin kide eta zer edo zer gehiago egin beharko luke. Asanbladetan 10 bat lagunek parte hartzen dugu eta jarraitzeak ez du zentzurik. Jendeak materiala eskatzeko eta fede-

1983: Ostadarrekoen lehen irteera, Gorbeara.



ratzeko bakarrik sentitzen du gure beharra, baina ez gara denda bat. Uzten dugunean, beharbada, Ostadarren falta nabaritutako dute. Mendi talde ia guztietan egoera bera bizi dute. Handiek biziraungo dute, baina txikiak desagertu egingo gara. Behin baino gehiagotan egon gara dena uzteko zorian eta halako batean hori gertatuko da. Ez dugu etorkizunik: elkartek denbora kentzen digu eta ez dugu saririk ikusten. Gure ezagunekin mendira joateko ez dugu mendi talderik behar: ez dugu zertan asteartero eta ostegunero bertan egon behar, ezta 200 agiri tramitatu ere".

Albiuak ikusten duen itzaropenerako arrazoi bakarra kultur etxean egoitza berria izango dutela da. "Oso lokal txarrak izan ditugu. Legazpin, berriz, elkarre gastronomikoa dute. Kultur etxeko egoitza orain arte izan duguna baino erakargarriagoa da".



Alex Areizaga

Informatika

Laster markak

Rebeldemule, Interneten dagoen komunitate alternatiboa da. Bertan, Emule-n aurki ditzakegun eduki ezberdinen gaineko informazioa jaso dezakegu. Emule-a irekia badugu, Web orri honetako loturetan (linketan) klik eginda, Emule-ko zerrendan jarriko zaigu aukeratutako edukia. Dokumentalak, pelikulak, albisteak eta askoz gehiago aurki dezakegu bertan. Rebeldemule Web-ean dioten moduan, beren helburua kultura zabaltzea da eta bertan aurki dezakegun edukia bide komertzialetatik ihes egin nahi duena da. Honela, kontu berri eta interesgarri asko aurkitu ditzakegu Web honetan. Animatu eta ikusi: www.rebeldemule.org.



Miren Arrieta

Osasuna

Gripea

Baita ere *influenza* deiturikoa, birus batek sorturiko arnas aparatuko gaixotasun kutsakorra da. Normalean broteka etortzen da udazken-negu garaian. Sintoma arruntenak, sukarra, buruko mina, nekea, muskulutako mina, gose falta, eztarriko mina eta eztula diren arren, batzuetan sintoma gastrointestinalak ere azalera ditzake. Sor dezakeen konplikazio garrantzitsuenetakoa neumonia da, eta norberaren bizitza arriskuan jartzera ere irits daiteke. Urtero txerto berriak sortzen dira aurreko urteko birus zeparen arabera. Txertoa 65 urte gorakoentzat gomendatzen da, baita gaixotasun kronikoren bat duten pertsona gazteagoentzat ere. Gainontzekoak, beren kasa gripea inolako konplikaziorik gabe gaintzeko gai direla uste da. Aurretik esan bezala, birus batek sorturiko gaitza da eta horrela izanda, antibiotikoek (antibakterianoak) ez dute gaitz honen kontra deus egiten. Sintomak hobetzeko, sendagaien laguntzarekin, giro epel eta hezean atsedena hartzea eta likido ugari edatea komeni da.

Taxi gidaria

"Las luces verdes del camino invitan a continuar la marcha y tú conduces aunque no te guste desde tugurios en suburbios hasta los barrios ilustres, Taxi Driver ¿cuántas vidas viste? ¿Cuántas prisas y sonrisas, cuántas caras tristes?"
Nach. Taxi Driver

Txuria lerro gorri batez zeharkatua, goialdean argia, bazuetan berdea eta beste bazuetan gorria, eta, barnean, kontatzeko moduko milaka istorio. Horrelakoa zen Mikelen taxia. Madrilgo kaleak zeharkatzen egiten zuen lan. Taxi gidari moduan edozein gauza ikus daitekeela diote, baina hala ere, Mikelek ezin zuen pentsatu hain gauza txarrak ikusi behar zituenik. Denetarik ikustea tokatu zitzaion, batzuk onak, noski, baina zoritxarrez gogoan zituen gehienak txarrak ziren.

Arratsaldeko zazpiak ziren. Egun normala zirudien: egunero bezala kaleak zeharkatzeari ekin zion, jendea taxian sartu eta sartu ibili zen, batzuek elkarriketa gehiago eman zioten, beste batzuek, berriz, gutxiago; batzuek propina onak uzten zizkieten, beste batzuek bat ere ez. Egun arrunt bat zirudien hark ere. Baina neska hura sartu zenean guztiz aldatu zen. Atentzioa deitu zion lehenengo gauza, neska negarrez ari zela izan zen. Hala ere ez zion jaramon handirik egin, hura ez baitzen guztiz anormala. Baina segituan konturatu zen neska haren negarrak ez zirela besteenak bezalakoak. Haren aurpegiaren malkoak ezezik, beldurra ere antzematen zen. Neskak segundo batzuk isilik iraun ondoren, nora joan behar zuen esan zion Mikeli, negar zotinka jarraitzen zuen eta ez zion "hijo de puta" errepikatzeari uzten. Orduan piztu zitzaion Mikeli kuriositatea. Zer gertatuko ote zitzaion neska hari? Neskak makilajea kentzeari ekin zion. Orduan ikusi zituen Mikelek ubeldurak. Begia belztua zuen eta lepoa kolpez betea. Mikeli bihotza hunkitu zitzaion, ezin zion begiratzeari utzi eta semaforo batera iristean, harengana biratu zen eta galdera bat egin zion:

"Barkatu, badakit ez dela nire kontua, baina zer gertatu zaizu?". Neskak ez zion jaramonik egin. Semaforo berde jarri zenean, berriz ere abiatu egin ziren. Bidaiaren azken minutuak isilik egin zituzten eta iristear zedenean, neskak lehen egindako galderari erantzuna eman zion: "jo egin nau". Momentu horretan helmugara iritsi ziren, neskak dirua autoaren atzeko eserlekuan utzi eta alde egin zuen. Mikel minutu pare bat gelditu zen mugitu ezinik, zer egin ez zekiela. Azkenean autoa berriz ere martxan jarri eta aurrera jarraitu zuen beste bezero baten bila. Gau hartan ezin izan zuen lorik egin neska hartan pentsatuz. Milaka galdera zetozkion burura, izena galdetu izan balio, bere atzetik irten izan balitz, berriro ikusiko al zuen... loak hartu zuen azkenean, baina bazekien inoiz ahaztuko ez zuen egunetako bat izango zela hura.

Ostirala zen eta gaueko laurak pasata ziren. Gau lasaia zen hura: ez zebilen inor kaletik, ez zegoen ia trafikorik eta, dagoeneko, etxeratzeko ordua iristen ari zen. Halako batean gizon bat ikusi zuen korrika gelditzeko eskatuz. Bere betebeharra zenez, Mikel gelditu egin zen. Gizona presaka sartu zen taxian eta martxan ipintzeko eskatu zion. Oso urduri zirudien eta Mikelek, badaezpada, autoa bizkor batean ipini zuen martxan. Nora joan nahi zuen galdetu zionean gizonak ez zuen erantzun. Hura ikustean Mikelek taxia gelditu zuen:

-Ez badidazu norakoa esaten, hementxe jaitsi beharko duzu
-esan zion errespetu handiz baina haserre punttu batekin.
-Barkatu, oraintxe esango dizut, baina Jaungoikoaren izenean, mesedez, ipin ezazu autoa martxan.

Gorka Gullón

Lan hau 2007ko Sagastiberri Urruzuno literatura-lehiaketatik hartua da
www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Daniel de la Iglesia

Daniel de la Iglesia zumarragarrik 27 urte ditu. La Salle-Legazpin ikasi zuen 16 urte bete zituen arte eta gero Andoainera joan zen. Bertan, ikusentzunezkoen ekoizpen, irudi eta soinu ikasketak egin zituen. Izan ere, zinea oso gustuko du haurra zenetik. UTBn kama-
ra lanak egiten ditu eta Zelai-Arizti aretoan, jarlekuzaina izateaz gain, filmak proiektatzen ditu. Bere lana "gustuko" du, nahiz eta batzuetan gaztetxoek arazoak sortzen dituzten. Etorkizunera begira, telesailen batean lan egitea gustutako litzaioke "gidoilari beza-
la edota ekoizpenean".

Zer izan nahi zenuen umetan?

Zinearekin erlazionatutako zer edo zer egin nahi nuen. Jurassic Park filmak zeresan handia izan zuen horretan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Filmaren bat ikustea, ordenadorean ibiltzea eta neskarekin Donostiara joatea.

Bizitzeko toki bat?

Hauxe. Aldi baterako Donostia eta aitaren herria ere gustuko ditut.

Gustuko filma?

Askotako gustuko. ¡Qué bello es vivir!, 12 hombres sin piedad, Olvídate de mí... Generoei dagokienez, zientzia fikizioa batez ere.

Gustuko aktorea?

Sekundarioak gustatzen zaizkit. Ed Harris edo Gary Sinise.

Gustuko aktore emakumea?

Oraingoan artean, Scarlett Johansson adibidez. Lehengoan artean bat hautatzea oso zaila da.

Gustuko zuzendaria?

Spielberg atsegin nuen. Garai batekoen artean, Sidney Lumet.

Gustuko aretoa?

Pantaila erraldoiak atsegin ditudanez, Belodromoa esango dut.

Ileheriak ala beltzaranak?


Baita ilegorriak ere. Ilearen koloreak ez du garrantziarik, bere zer edo zer erakargarria suertatzea baizik.

Egindako azken oparia?

Barruan DVD bat zuen postala.

Eta jasotakoa?

Urriaren 12ko zubian neskalaguna aretoan egon zen nirekin.



Data bat?

Santa Lutzi eguna betidanik gustuko dut. Orain irudiak hartzen egoten naiz eta inork baino hobeto ezagutzen dut. Dagoeneko idi probak gustuko ditut!.

Neska eta mutil izen bana?

Neskenak, Edurne eta Nerea. Mutilenak, Karlos eta Asier.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV egunero, baina parean suertatzen diren gainontzeko guztiak ere irakurtzen ditut. Ez dut joera begiratzen.

Gustuko telebista saioa?

Telesailak atsegin ditut: *Perdidos*, *House*, *Heroes*...

Bereziki gorroto duzuna?

Denek diotena esango dut: saio arrosak. Filmak ikustea ere ez zait asko gustatzen, iragarki mordoa botatzen baitituzte.

Liburu bat?

Los pilares de la tierra.

Abesti bat?

Denetik entzuten dut. Taldeei dagokienez, Dire Straits eta Queen azpimarratuko nituzke.

Soinu bat?

Aspaldi ikusi ez dudanaren ahotsa.

Usain bat?

Belar moztu berriarena, itsasoarena... naturarenak orokorrean.

Janari bat?

Patata tortila.

Ura ala...

Errefreskagarriak. Alkoholdun edaririk ez dut edaten.



Entzumen Zentroak

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU



**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE